

IRURTZUN**Aisialdiko biltoki eta/edo txabiske iraunkorrek arautzen dituen ordenantza behin betikoz onetsirik**

Irurtzungo Udalak "Aisialdiko biltoki eta/edo txabiske iraunkorrek arautzen dituen ordenantza" hasiera batez onestea erabaki zuen 2005eko apirilaren 2an egin osoko bilkuran. 2005-05-16an 58. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratu zenetik jendaurrean egoteko 30 eguneko epea iragan denez inork alegaziorik aurkeztu gabe, delako ordenantza behin betikoz onetsirik gelditu da. Haren testu osoa ondotik ematen da.

AISIALDIKO BILTOKI ETA/EDO TXABISKE IRAUNKORRAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**A T A R I K O A**

Etxabeak aisialdiko lekutako erabiltzeko eskaera soziala eta ohitura aspaldikoak dira Irurtzungo udal mugapean, eta gero eta indar handiagoa hartzen ari dira, udalerrian hirugarren sektoreko merkatuak eskura jartzen dituen aisiako eskaintzen osagarri gisa edo bertzelako aukera gisa. Jokabide hori batzuetan ez da herriko bestetara mugatzen, eta urte osoan erabiltzen dira horrela etxabeak.

Udalak badaki bereziki gazteen artekoa den eskaera sozial horri erantzun beharra dagoela, baina, aldi berean, ukitutako auzoen deskantsu egokia eta horien eta erabiltzaileen beren segurtasuna bermatu behar dituela. Batzuetan ikusi da erabilera hori duten lokaletan ez direla neurri zuzentzaile egokiak aplikatu eta, are gehiago, lokalen edo eraikinen egitura baldintzak desegokiak izanik, arriskua handia dela.

Jarduera horien garapen egoki eta arrazoizkoa eta ukitutako bizilagunen eskubideak koordinatzeko, ordenantza hau idatzi da.

Ordenantza honetako jarduerak ez dira, izan, industriako edo merkataritzako jarduerak, eta, hortaz, ez dira irekitzeko lizentzia eskuratzeko tramitea gainditu beharreko jardueratzat hartzen ahal, Toki Entitateetako Zerbitzuen Erregelamenduko (1955eko ekainaren 17ko Dekretuko) 22. artikuluan xedatuarekin bat.

Zernahi gisaz, gauza egiaztatua da lokal hauen erabiltzaileek, leku horietan neurri zuzentzaile egokiak aplikatzen ez direnez, traba egiten dietela auzo hurbilei, bereziki gaueko ordu tikietan asotsak aterata, auzoen atsedena eragozten baita eta segurtasun eza sortzen, jarduera horien kontrol eza dela-eta. Halaberean, suteen kontrako neurririk ez izateak auzoen eta eraikinaren segurtasunean eragin ez ezik, lokalen erabiltzaileen segurtasunean ere era eragiten du zuzen-zuzenean. Hori dela-eta, beharrezkoa da eta ezin geroratu neurri zuzentzaile egokiak ezartzea eta, lokala erabiltzen hasi aurretik, administrazioak neurri horiek paratzen direla begiratzea, bere eskuan dituen kontroleko eta poliziako eskumenak erabilita.

Berrikitan, zioen azalpen honetan adierazitako ildotik, abenduaren 10eko 26/2001 Foru Legeak _Jendaurreko ikuskizunak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 14ko 2/1989 Foru Legea aldatzen duenak_ zioen azalpenean dio josteta jarduera sozialak egiteko lokalek eta instalazioek, sarbide mugatukoek, dakarten arazoari aurre egin behar zaiola, bereziki segurtasun baldintzak, osasungarritasuna eta hirugarrenei egiten zaien traba gogoan izanik. Bide berari jarraitzen dio xedapen zatiak ere; izan ere, aldatutako legearen 1.2 artikulua testu berriak dioenez, josteta edo aisialdi jarduerak egiteko lokal horiek, nahiz eta aplikazio esparrutik kanpo dauden, behar diren baldintza teknikoak beteko dituzte hirugarrenei enbarazu ez egiteko eta pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko, bereziki egituren sendotasunari eta instalazioaren funtzionamenduari dagokienez, suteen aurkako prebentzio eta babes neurriei dagokienez eta osasungarritasun eta higiene baldintzei dagokienez ere; horretarako, behar den udal lizentzia eduki beharko dute.

Horrenbertez, ordenantza hau sortu da, alde batetik, aisia alternatiboa izateko lekua, gehienbat herriko gazteek eskatzen dutena, bermatzeko (ezin da ahaztu bereziki gazteen jarduera izate hori, bertenez beharrezko segurtasuna izan gabe jarriko baitira halakoak) eta, bertetik, erabiltzaileen beren eta bizilagunen trabak eta arriskuak baztertzeko. Jarduera horretan egiten diren arau-hauste guztiengatik erantzunen duen arduradun bat ere izanen da. Hartara, interes pribatuak eta interes publikoa, biak zaintzen dituen aterabide egokia izanen dugu.

Ordenantzaren edukiari dagokionez, beharrezko neurri zuzentzaileak zehaztu, xehekatu eta derrigortuko dira hemen. Gainera, bertze xedapen batzuk ere ezarriko dira huen inguruan: eskatzeko zer prozedura izanen den, eskabidearekin batera zer agiri aurkeztuko diren, arauak bete ezean zer neurri hartuko diren eta abar.

Aplikazio esparrua

1. artikulua. Ordenantza hau Irurtzango udal mugapean gaur egun dauden aisialdiko biltoki eta/edo txabiske iraunkorrei aplikatuko zaie, baita etorkizunean irekitzen direnei ere.

ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

2. artikulua. Xedea. Ordenantza honen xedea da "aisialdiko biltoki" eta/edo "txabiske" deitu jardueri, ireki edo abiatu aurretik, ezarri beharreko neurri zuzentzaile zehatz eta ezin geroratuak zehaztea

Bertzalde, jarduera horiek kontrolatzeko udal tresnak finkatzen dira hemen. Lehenik, jarduera egileei lizentziak eskatuko zaizkie, eta, jakina, eskabideak eta honelako lokalak ireki aurretik ezarri beharreko neurri zuzentzaileak aztertuko dira.

3. artikulua. Definizioa. Biltoki edo txabiske iraunkorrak dira sarbide mugatuko lokalak, publikoari irekita ez daudenak, hirigintzako araudiak halakoak ezartzeko baimena ematen duen eraikinetan daudenak; eta berariaz adierazten ez bada, antzeko erabilerarekin parekatuko da; helburu kulturalak, didaktikoak, aisialdikoak eta antzekoak gauzatzeko biltzen da horietan jendea. Beheko solairuetan ezarriko dira, inoiz ez goragoetan.

TITULU BAKARRA LEHENBIZIKO KAPITULUA

Prozedura

4. artikulua. Lizentziaren tramitazioa: Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta, bereziki, ordenantza honetako xedapenetan ezarritakoari jarraikiko zaio.

4.1. Eskaera eta ordezkaritza. Interesatuek, ordezkariaren bidez, lizentzia eskatuko diote Udal honi, eskura jarritako eredia erabilia. Horretarako, 1. eranskinean eskatzen diren agiriak ekarriko dira, eta partaide guztien datu pertsonalak, NAN, helbidea, telefonoa eta guzti. Gainera, txabiskearen helbidea eta izena eskatuko zaizkie.

Nortasun juridikorik gabeko batasuntzat hartuko dira eskatzaileak, eta administrazioarekiko tramite guztietan ordezkari bat ariko da, eskaera egin aitzin izendatuko dena. Zuzenbidean onartzen ahal diren bitartekoak erabilia frogatuko du hark ordezkaritza edo, bertzenaz, agertu eta deklarazioa eginda; ordezkariaren izendapena eta honen onespina jasotzen duen agiria ekartzeak ere balio izanen du, nahiz eta protokolarizatu gabe egon. Agiri hori batasuneko kide guztiek sinatuko dute, eta denen NAN zenbakia agertuko da han.

Jarduketa guztiak ordezkariarekin egingen dira, eta berak adierazitako helbidean jasoko du ordezkariak Udalaren egintza guztien jakinarazpena; Udalaren xedapen eta egintza guztiak egin eta betetzeko konpromisoa eta ardura hartuko ditu, eta bere gain hartuko ditu horiek ez betetzeak dakartzan ondorioak. Adin tikikoa bada, hirugarren pertsona bat izendatuko da, adin nagusikoa eta kaudimenduna, fidatzaile-erantzulea izan dadin (egitekoa onartzen duela azaldu ondoan), ordezkariari ezartzen zaizkion egitekoak ez betetzearen ondorioak (nagusiki, kaltea konpondu beharra eta, kasu batzuetan, zehapena) bere gain har ditzan. Hori guztia, deusetan ukatu gabe batasuneko kideengan ere ondorioak izatea.

4.2. Instrukzioa. Aitzineko atalean adierazitako agiriak aurkeztu ondoan, espedientea tramitatuko da Herri Administrazio Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatuarekin bat.

4.3. Ebazpena. Udaleko zerbitzu teknikoek eskaera eta aurkeztutako agiri teknikoak aztertu ondotik, eta egin beharreko errekerimenduak egin eta gero, eskatutako lizentziaren gaineko erabakia hartuko du Udalak; adieraziko du ea Udal Planeamenduan ezarritako hirigintza erabilerarekin bat datorren eta erantsitako agirietan azaldutako neurri zuzentzaileen planteamendua egokia den; Udalak neurri osagarriak ezartzen ahalko ditu jarduerak egokiro gauza daitezen.

Eraikinaren kontserbazio egoera ona den begiratu eta Udaleko teknikariak uste badu segurtasun akatsak daudela, teknikari eskudunak idatzitako ziurtagiria eskatuko zaio eskatzaileari; hartan adieraziko da lokalak eta, bertzenaz, eraikinak behar bezainbateko segurtasuna eta egitura sendoa dituela. Ziurtagiriak erraten badu horiek ez direla behar bezainbatekoak edo ziurtagiria aurkezten ez bada, ukatu egingen da lizentzia.

Adierazitako neurri zuzentzaile guztiak benetan aplikatzea izanen da betiere lizentziaren baldintza.

II. KAPITULUA

Xedapen teknikoak

5. artikulua. Ordenantza honetan adierazitako jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak testu honekin batera doan 1. eranskinean daude.

6. artikulua. Aplikatzeko diren arau sektorial desberdinek eskatutako baldintzak beteko dituzte eranskinetako jarduerak. Arau aldaketa egonez gero, aplikatzekoa den araudi berriko determinazioetara egokituko da jarduera, eta horretarako lizentzia berrikusteko eskatuko da.

III. KAPITULUA

Administrazioaren esku-hartzea

Ikuskapenak. Irurtzango Udaleko langile eskudunetan ikuskatzeko eta egiaztatze lanetarako izendatu direnek eginen dituzte ikuskapenak, eta beren lanean agintaritzaren agenteen maila izanen dute.

Interesatuek lagundu eginen dute ikuskapena egiten denean: ikuskatzaileei lokaletan sartzen utziko diete, inolako trabarik egin gabe, eta betiere behar duten laguntza emanen diete.

Lizentzia eskatu eta eskuratzek berarekin dakar artikulua honetako lagundu behar hori onartzea eta hori egiteko konpromisoa hartzea.

7. artikulua. Errekerimendua eta ixtea: Ordenantza honetako edo aplikatzekoak diren bertze arauetako xedapenen bat bete ez dela ikusiz gero, titularrei errekerimendua eginen zaie, epe zehatz batean huts hori konpon dezaten; epe hori iragan eta titularrek ez badute frogatzen errekerimendua bete dutela, administrazio honek, beharrezko tramiteak egin ondoan, lokala ixteko espedientea abiaraziko du.

Auzoei behin eta berriz traba egiten zaiela egiaztatzen bada edo pertsonen segurtasuna arriskuan badago, horien sorburua lokalaren barnean nahiz kanpoan egon (azken kasu honetan, jakina, arazoa lokalaren jarduerari lotuta dagoela frogaturik), Udalak, kautelazko neurri gisa, lokala zuzenean ixten ahalko du, egintzak egiaztatuta eta alde zuzeneko errekerimendurik gabe.

8. artikulua. Asotsen arloko arau-haustek: jarduera bakoitzean ezarritako soinu-mugengatiko arau-haustek zehatzean, ekainaren 6ko 135/89 Foru Dekretuko 24. artikuluari jarraikiko zaio; izan ere, dekretu horren bidez ezarri ziren asotsak eta dardariak sortzen dituzten jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak; 60 eurotik 240 eurora bitarteko zehapena ezarri da eta, arauak ez betetzean berreroriz gero, ixteari ekinen zaio.

9. artikulua. Jarduera aldaketa: delako jarduerarako ezarritako mugetako bat iragaten baldin bada, eta hori dela-eta bertze jarduera talde batean sartzen ahal bada, dagokion araubide teknikoa aplikatuko da. Halakoetan bertze lizentzia bat eskatu beharko da, egiten den jarduerak behar duen lizentzia, hain zuzen ere. Ezin izanen da lokalean inolako jarduerarik egin, harik eta lizentzia hori eta, kasu batzuetan, funtzionamendu baimena edo irekitzeko lizentzia eskatu eta eskuratu arte.

10. artikulua. Egilea eta erantzulea: lizentzia eskabidean ordezkari izendatu den pertsonari eskatuko zaio arau-haustea bukatzeko eta legetasunera itzultzeko, eta hari abiarazi eta ezarriko zaizkio zehapenak. Adin txikikoa bada, eskabidean adierazi den fidatzaile-arduradunari eskatuko zaio erantzukizuna. Horrek ez du deusetan galarazten ordezkariak edo fidatzaile-arduradunak batasuneko kideen aurkako egintzei ekitea.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabortz egun iraganda hartuko du indarra.

1. ERANSKINA

Biltoki eta/edo txabiske iraunkorrak

Nahitaez bete beharreko baldintzak:

1._Sareko ura, edatekoa.

2._Argindarra.

3._Suteei aurrea hartzeko neurriak, indarra duen araudi sektorialari jarraikiz.

4._Garbigela. Gutierrez ere gelatxo izan beharko du, komun-ontzia eta konketa izanen dituen.

5._Soinu-inmisioko mugak ez gainditzea: 30 dB (A) etxebizitzetan, 45 dB patioan eta 50 dB kaleetan; isolamendu akustiko egokia eskatuko da.

6._Erantzukizun zibilararen aseguro poliza eta suteen kontrako bertze poliza bat sinatzea.

7._Jabearen datu pertsonalak eta haren onarpena. Alokairurik badago, jabeak inskribaturik egon beharko du epigrafe honetan: "186120. Lokalen alokairua".

Debekuak:

Plastikoak, kartoiak, lastairak edo suteak sortu edo horiek hedatzea erraztu dezakeen bertze edozein material jartzea edo erabiltzea.

Lokalean ezin izanen da merkataritzako inolako jarduerarik edo salmentarik egin. Txabiske iraunkorretan debeku da adin txikikoek alkohola edatea".

Irurtzunen, 2005eko ekainaren 21ean._Alkate udalburua, Juana María Martínez Jaunsarás.

Iragarkiaren kodea: L0514868